

KOSTUEN EGITURA

Gastuei dagokienez, kostu aldakorrak eta finkoak izango genituzke:

- Kostu aldakorrak: zapatilak sortzeko beharrezko materiala.
- Kostu finkoak: alokairua, langileen soldatak, makinak, informazio prozesuetarako ekipamendua, altzariak, garraio elementuak.

Hasiera batean zapatilak egiteko, gure lokal orokorrean lau makina izango genituzke, 2.500€takoak bakoitza, beraz, 7.500€. Bestalde, altzari batzuk ere edukiko genituzke lehengaiak jasotzeko, 300€ inguru. Horrez gain, denda bakoitzean, 330€tan baloratutako PC bat izango genuke, eta 120€tako pantaila, guztira, 1.350€.

Gainera, dendetako mahaiek 190€ko kostua izango lukete, hau da, 570€, eta apal batzuk, bakoitza 10€tan erositakoa, beraz, denda bakoitzean hiru edukiko genituzkeenez, 90€ izango litzateke haien prezioa.

Donostian edukiko genukeen lokalak 60m² inguru izango lituzke, kontuan hartuz bertan makinak, biltegia, apalak... sartzeko tokia beharko genukeela, eta 400€ ordaindu beharko genituzke alokairuagatik. Horrez gain, 3 denda edukiko genituzke bakoitza 20m² ingurukoak eta 350€ko kostuarekin.

Lokal orokorretik dendetara zapatilak eramateko, bigarren eskuko hiru furgoneta edukiko genituzke bakoitza 6.000€ ingurukoak, beraz, 18.000€.

Laburbilduz, izango genituzkeen gastua gutxi gorabehera 29.260€koa izango litzateke, eta kontuan izanda diru sarrerak 36.000€koak izango liratekeela, 6.740€ izango genituzke soldatak eta gainerako gastuei aurre egiteko zapatilen erosketarekin lortutakoaz aparte.